ASTEKO GAIA: *Goiena komunikazio taldearen aurkezpena* /3

BIXENTE PAGALDAI

Donostiako maratoian 23 urtez jarraian /10



Goienkaria

OSTIRALA • 2000ko abenduaren 1a • I. urtea

1. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



Elkarrizketa

Igandean Bergarara etorri aurretik, Xabier Arzalluzekin izan gara /9

Goienka2a

Pauso guztiek Durangoko Azoka helmuga

Oñatiko neska-mutikoen hizkuntza erabilera aztergai

Gaztetxoen artean euskarak bizi duen egoera ezagutzea da helburua

Datuak ezagutu ondoren erabakiko da zein ekintza aurrera eraman

Oñatiko gaztetxoen hizkuntz erabileraren azterketa egiteko hitzarmena sinatu zuten Oñatiko Udalak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak asteazkenean. Humanitate Fakultateko ikasle Eneritz Zubiondo lekeitiarra izango da azterketa hau egiteaz arduratuko den bekaduna. Azterketa horren helburu nagusia gaztetxoen artean euskarak bizi duen egoera ezagutzea da, behin datuak eskuetan izanda, zein ekintza eta politika abian jarri zehazteko. Eneritz Zubiondo bekadunak bederatzi hilabeteko epea izango du aipatutako azterketa burutzeko. Hitzarmen horren sinatze ekitaldia asteazkenean, 11:30ean, izan zen Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Angel Iturbe alkatea eta Jesus Garmendia Humanitate Fakultateko dekanoak sinatu zuten hitzarmena. /4



Angel Iturbe Oñatiko alkatea eta Jesus Garmendia Humanitate Fakultateko dekanoa sinatze ekitaldian. GOITB

Kaixo Debagoiena!

Kaixo, Debagoiena; horixe esan beharko dugu aurrerantzean. Kaixo, Arrasate; kaixo, Bergara; kaixo, Aretxabaleta... esaten jarraituko dugu, baina hemendik aurrera eskualde osora ere zabalduko dugu mezua: Antzuolatik Aramaiora aldenik alden, bederatzi herritara.

Herri aldizkariak urteak daramatzate tokian tokiko albisteak lantzen, eta gaur egun erreferentzia dira herritarrentzat. Orain, beste erronka bat daukagu aurrean, herrikoari eutsi eta bailarakoa lantzea. Ez da lan erraza, baina Goienkariak tokia badaukala uste dugu, badirelako debagoiendar guztioi intereskoak zaizkigun gaiak. GOITBk aurtengo maiatzean ekindako bideari jarraituko diogu, apal, baina sendo. Hasieran, astero. Gero? Zuek, irakurleok, duzue hitza.

Azbe®

"Segurtasuna bermatzen dugu, lasaitasuna eskaintzen dugu"

Basabe, 3 - 20550 ARETXABALETA
Tel: 943 712 929

Justo Garate omenduko du gaur Bergarako Udalak


Justo Garateren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldia izango da gaur, 19:30etan, Bergarako Udaletxean. Bergararraren lana biltzen duen liburua kaleratu du Eusko Ikaskuntzak eta gaur aurkeztuko da. Ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea, Elias Amezaga liburuaren bultzatzailea eta Eusko Ikaskuntzako hainbat kide izango dira. Aurkezpenaren ondoren, gitarra emanaldia izango da. /5

800 milioi pezeta Arrasateko Uribarri auzoa konpontzeko

Uribarri auzoa eraberritzeko behin-behineko egitasmoa aurkeztu dio LKS ingeniaritza enpresak Arrasateko Udalari. Ia 800 milioi pezetako inbertsioa egin beharko da auzo horrek dituen beharrak konpontzeko. Aurreikusten diren beharren artean aparkalekuek hartzen dute zatirik handiena. Ia 300 aparkaleku pribatu egiteko beharra dagoela uste du proiektugileak. Horrez gain, umeak jolasean ibiltzeko guneak, kirolguneak eta berdeguneak egitea ere proposatu da. LKSren proiektuak aurrera egineu gero, orain arte publikoak izan diren zenbait lursail pribatizatu egingo ditu udalak. Modu horretan, auzotarren erabilerarako utziko ditu hainbat lurzoru; adibidez, Uribarri auzoan asko dira igogailurik ez duten etxebizitzak eta arazo hori konpontzen laguntzeko bidea izan daiteke lurren pribatizazioa. /5

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/10 • KULTURA/15 • NON ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ZERBITZUAK/20 • TELEBISTA/22

EUSKARA
Zure unibertsoan







http: //www.gipuzkoa.net/kultura

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua

ARETXABALETA

Ongi etorri, GOIENKARIA!
Aretxabaleta, euskararen herria.



ARETXABALETAKO UDALA
Otalora, 1 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 10 00

Baina, *zer demontre* da Goiena?

Goiena Telebista, Goienkaria eta Goiena ezagunak egingo zaizue askori. Baina, zer da Goiena? Zein dago Goienaren atzean? Zertarako sortu da? Zein helbururekin?

ENEKO AZKARATE

Ezer baino lehen, jakin ezazue Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak bultzatu eta sortu duela eskuetan daukazuen egunkari itxurako astekari hau.

Goienak aurtengo martxoaren 31n egin zuen sorrera batzarra. Bertan Debagoieneko eta Aramaioko euskara elkarte guztietako ordezkariak elkartu ziren, guztiak ordezkatuta daude-eta Goienan. Egitasmoa lantzen, ordea, iazko irailean hasi ziren eta 1999ko urtearen hondarrean adostu zuten Goienaren izaera, helburu, printzipio eta lan-jarduera nagusiak.

Baina, zer helbururekin sortu zen Goiena? Funtsean, elkarlanean komunikabideen eta telekomunikazioaren alorrean etorkizunari errazago aurre egiteko eta eskualde osorako euskarazko euskarri berriak bultzatzeko. Telebista eta prentsa idatzia dira garatuen daudenak: GOITB eta Goienkaria.

Enpresaren egitura juridikoari dagokionez, bitariko kooperatiba aukeratu da, bazkide eta diru ekarpen mota askotarikoak onartzen dituelako. Euskara elkarteak dira bazkide nagusiak, baina erakunde publiko nahiz pribatuei eta langileei ere ateak irekitzen zaizkie, eta guztiak daude ordezkatuta aginte organoetan.



Martxoaren 31n egin zen Goienako sorrera batzarra Euskadiko Kutxak Aretxabaletan duen Otalora etxean. Argazkian, Goienako kideak.

Finantzaketa


Gaur egun, bi dira Goienaren finantzaketa bideak: alde batetik, bazkide sortzaile eta erakunde publikoen diru laguntzak, eta bestetik, publizitatea. Sei dira dagoeneko Goiena egitasmoa onartu duten udalak: Aramaio, Arrasate, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Antzuola. Oñati, Bergara eta Elgetan aztertzen ari dira oraindik. GOITB eta Goienkaria diruz laguntzeko, biztanleko 1.000 pezeta eskatu zaizkie udalei.

Goienkaria

Gaur, abenduak 1, jaio da Goienkaria, baina aurtengo martxoan hauteskundeetaz ale berezia argitaratu zen, eskualde osoan banatu zena. Hura izan zen honen aurrerakina. Goienkaria astero banatuko da Debagoieneko herri guztietan, herri aldizkariak banatzen direnetan, hauekin batera: bestela, bakarrik. 20.000 ale banatuko dira, euskaraz egindako idatzizko komunikabide batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena.


Goiena Telebista

Eskualdeko bi herri telebisten, Arrasate Telebista eta Atxabalta Telebista, esperientzia eta eskarmentua aprobetxatuz (ATBk 10 urte bete zituen aurtengo urtarrilean), maiatzaren 22an abiatu zen. Arrasaten ditu egoitza eta emisio zentro nagusia. Oraingoz, Leintz aldean ikusten da bakarrik. Oñati, Bergara, Elgeta eta Antzuolara seinalea zabaldu ez den arren, eskualde osoko berriak eskaintzen ditu.




Estepan Plazaola

Goienako lehendakari izandatu zuen Batzar Orokorrak. Mondragoetarra izatez, Bergaran bizi da. Bergarako Udaleko euskara teknikaria da. Jarduneko sortzaileetako bat.




Mikel Irizar

Goienako sortzaileetako bat, elkarteko lehenengo zuzendari nagusia da. Hainbat urtetan ARKOko zuzendaritzan jardundakoa. ETBko "Lengua viva"ko urkezlea da.



Andoni Urtzelai

Atxabaltarra, Goiena Telebistako zuzendaria. Urteetan ATBn ibilia, azkenaldian Asegarcen jardun du. Eskualdeko telebistaren ereduaren gainean buru-belarri dabil.



Eneko Azkarate

Laster 10 urte beteko dituen Berrigara astekariko zuzendari izandakoa Goienako prentsa arloko arduraduna da. Goienkaria abiatzea da bere zeregin nagusia.



Gotzon Arzelus

Bergararra, Alcon Bidaiak agentziatik dator eta arlo komertzialeko buru da. Goienako produktuen eskaintza egin eta merkatu berriak zabaltzea da bere helburua.



Agurtzane Gantzarain

ARKOko gerentea eta Goienako pertsonal buru eta administrazio arduraduna. Mondragoetarra. Aurrekontuak eta gestio planak egin, hitzarmenak prestatu... dira bere lanak.

Mundua eta gu

Mundua aldatuz doa. Arrapaladan. Hesiak jausten ari dira. Gero eta errazago iristen zaigu mundu zabalekoa. Gero eta elkarlotuago gaude mundu zabalekoekin. Gero eta mundutarrago gara, haien berdinago.

Berdintasuna ona da, berdinkeria ez. Berezko nortasunari eusteko, aukera eta tresnak behar dira. Mundu zabalean eroso egoteko, gutaz eta gure hizkuntzan jardungo duten hedabideak behar ditugu. Indartsuak, berrizaleak, gureak. Lehengoetan oinarrituta, sendoak. Batasunaren indarrez, lehiakorrak.

Elkarren berri dugun neurrian izango gara elkarkide. Elkarkidetzak egingo gaitu komunitate. Eta komunitate izateak emango digu mundu zabalarekin lotzeko askatasuna.

Lehengoen batasunetik eta komunitategile izateko sortu da Goiena.

MIKEL IRIZAR

ARETXABALETA | ETORKIZUNEKO HERRIA EZTABAIDAGAI



Plan estrategikoa burutzen ari diren Kontseilu Orokorreko kideak. IRATXE BENGOA

Plan estrategikoarekin datozen urteetarako proiektua zehaztuko da

MIRARI ALTUBE

Martxoan onartu zuen Aretxabaletako Udalak herriko plan estrategikoa egitea. Aretxabaletak dituen gabeziak ezagutu, datozen urteetan izango dituen beharrak aurreikusi, eta ahal den gestiorik zuzen eta egokiena egitea izan da udalaren helburua plan estrategikoa abian jartzerakoan.

Lan garrantzitsu hori burutzeko, aholkularitza bat hartzea erabaki zen eta aurkeztutako zazpi enpresaren artean LKS aholkularitza hautatu zuten. Zazpi milioi eta erdiko aurrekontua eta bost hilabeteko epea eman zitzaion LKSri plan estrategiko hori burutzeko.

Uztailean bertan hasi zen lanean LKS, eta herriko hainbat esparruko jendearekin jarri zen kontaktuan, herritarren parte hartzea ezinbestekoa baitzen: industria gizonak, komertzioetako langileak, heziketa arduradunak, nekazaritza munduko ordezkariak, kultur eta gizarte taldeetako kideak... guztiak batu nahi izan dira.

Lanean jarduteko hogei bat atxabaltarrek osatutako bi talde egin ziren, Kontseilu Orokorra eta Aholkularia. Aretxabaletako datu eta ezaugarriak ondo ezagutzea ezinbestekoa zen lanean hasteko, eta LKS aholkularitzak herriko diagnostikoa izeneko txostena eman zien taldean eztabaidatzeko. Urrian, diagnostikoaren txostena aztertu ondoren, herriak dituen ahultasun eta indarrak eta garapenerako izango diren mehatxuak eta aukerak adostu ziren.

Azaroan, berriz, herriaren garapenerako dauden oztopoak eta lehiakortasun abantailak agertu dira, eta horiek oinarri harturik lehentasunak markatu eta Aretxabaletarako datozen hamar urteetarako proiektua zehaztuko da.

BERGARA | OMENALDIA GAUR

Justo Garate jaio zela 100 urte betetzen direla gogoratuko du Udalak

Bere lana liburu batean bildu dute

MONIKA BELASTEGI

Udalaren omenaldiak bat egiten du Justo Garateren jaiotzaren 100. urteurrenarekin. Ekitaldia 19:00etan izango da osoko bilkuren aretoan. Bergarako intelektualaren lana liburu batean ere bildu du Eusko Ikaskuntzak, "Lankidetzan" bildumaren barruan.

1900. urtean jaio zen Barrenkalea auzoan. Sendagile ospetsua, Medikuntzan doktorea zen Madril eta La Platako Unibertsitateetan. Ikerlari emankorra, hamar libururen egilea da eta 620tik gora lan, idazki eta azterlan argitara eman zituen. Bestalde, gerraurreko garaian euskal kulturaren suspertzaile izan zen eta 1932tik aurrera Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko kide.

Argentinara erbesteratua, Buenos Airesen "Instituto Americano de Estudios Vascos" sortu zuen. Baina, urruti egon arren, ez zuen ahaztu Bergarako semea zela. 1994an hil zen Argentinako Mendoza hirian.

Horregatik guztiagatik omenduko du udalak. Ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea, Ana Toledo Gipuzkoako Eusko Ikaskuntzako kidea, Elias Amezaga liburuaren bultzatzaile eta autoreetako bat, eta Jose Luis de la Granja Eusko Ikaskuntzako bazkidea egongo dira. Aurkezpenaren ondoren, "Airean" gikarra laukoteak kontzertua eskainiko du.

LANA LIBURU BATEAN

Omenaldiaren barruan, Eusko Ikaskuntzak Justo Garateren lan oparoa biltzen duen liburua kaleratu du udalarekin elkarlanean. Liburua asteazkenean aurkeztu zuten udalean Koldo Pereira kultura zinegotziak eta Xabier Aranburu udal museologoak.

Lau atal ditu: sarrera, Garateren lanaren azterketa, argazki bilduma eta omenaldia. Pereiraren arabera, liburua ez da omenaldi hutsa, "Goratzarrea baino zerbait gehiago izatea nahi genuen. Arlo asko jorratu zituen pertsona izan zen eta horiek bildu eta bakoitzaren gaineko analisi sakona jaso nahi genuen". Bestalde, bere idatzien gaineko azterketa atala oso garrantzitsua dela gaineratu zuten, Garate ezagutzera iristeko bide aproposa. Eta horixe dela, liburuaren ekarpena.

Atal bakoitzak hainbat autore ditu, 30 orotara, Estatukoak eta Amerikakoak.

Zertzelada

1932tik Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko kide izan zen. 620tik gora lan, idazki eta azterlan argitara eman zituen eta 10 libururen egilea da.

ARAMAIO | DIRU ARAZOAK AUTOBUS ZERBITZUAN

Autobusa ez da auzo batzuetan geratuko

UBANE MADERA

Atzo Aramaioko Udaleko udalbatzarrean jakinarazi zenez, Aramaiotik Arrasatera doan autobusa ez da Mondragoeko Gesalibar, Garagartza eta Uribe auzoetan geratuko.

1999ko urtarriletik dago abian autobus zerbitzu hori, eta Aramaioko zein Mondragoeko herritarrei mesede egiten dienez, Aramaioko Udalak autobusaren finantzaketan laguntzeko eskatu zion Arrasatekoari.

Autobusak eguneko 32.000 pezetako gastua du eta horren herena ordaindu beharko luke Arrasateko Udalak; gainerakoa Arabako Foru Aldundia eta Aramaioko Udalaren artean finantzatuko litzateke. Baina, Arrasateko Udalak ez du inolako diru laguntzarik eman. Autobusak bi joan-etorri egiten ditu egunero Arrasate eta Aramaioren artean; goizean eta iluntze partean.



Arrasateko Udalak ez dio laguntzarik eman Aramaioko autobusari.

ELGETA | PILOTALEKUA KONPONDU NAHI DUTE

Kirol eraikinen egokitasuna eztabaidagai izan da

Deialdian 18 lagunek parte hartu zuten

IBAN ARANTZABAL

Elgetako Udaleko kirol batzordeak deituta, 18 lagun batu ziren kirolari lotutako azpiegituren gainean berba egiteko.

Hauxe izan da Oskar Carrascal tekniko berriak izan duen lehenengo eginbeharra. Berak azaldu digunez, "parte hartze honek animoak ematen dizkit eta edonork eztabaida hauetan pare hartu nahi balu, ateak zabalik ditu. Edozein delarik ere esatekoa, ondo legoke guregana hurbiltzea".

Bileran hiru azpimultzo bereiztu dira: "Etorkizun hurbil, ertain eta luzera begira egin beharrekoen gainean jardun dugu, hala ere, horrek ez du esan gura berba egindako guztiak aurrera eramango direnik. Kanpoko eta barruko igerilekuak, bide gorriak, pista estali bat, padel pista egitea, gimnasiorako tresneria erostea, aldageletan berogailua jartzea...

Guztien iritziak entzun arren, lehentasunak markatu behar dira, eta horixe egingo da. Herritarren eskaerak "oso kontuan hartzekoak" direla esan digu Carrascalek eta, horrez gain, orain bere ustez badirela derrigor egin beharreko lanak. Horien artean, "pilotalekuko teilatua konpontzea lehentasunetariko bat da, eta, inbertsio errealei begira, bide gorriak txukuntzea eta kirol pista estali bat egitea" aurreikusten ditu. "Hauek posibleagoak dira aldunditik dauden diru laguntzei esker; hala ere, herritarren iritzi guztiak entzun eta guztiei emango zaie erantzuna hurrengo bilera batean".

ARRASATE AZPIEGITURA BERRIAK AUZOETAN

Uribarri auzoa goitik behera konpontzeko proiektua aurkeztu da

Ia 800 milioi pezetako aurrekontua behar da horretarako

UBANE MADERA

LKS ingeniaritza enpresak Uribarri auzoa eraberritzeko behin-behineko egitasmoa aurkeztu dio Mondragoeko Udalari. Aurreikusitakoaren arabera, ia 800 milioi pezetako inbertsioa egin beharko da auzo horrek dituen beharrak konpontzeko.

Orain, proiektua jendaurrean dago ekarpenak edo alegazioak jasotzeko. Horrez gain, Uribarri auzoan erakusketa berezi bat antolatzea ere aurreikusi du udalak, auzotarren iritziak zuzenean jasotzeko.

Beharrezko alegazioak jaso ondoren, onartu edo errefusatu egingo dira eta horren arabera idatziko da behin betiko proiektua. Ondoren adjudikatuko dira lanak eta gero hasiko dira egiten.


APARKALEKU BEHARRA

LKS ingeniaritza enpresak aurreikusten dituen beharren artean aparkalekuek hartzen dute zatirik handiena. Ia 300 aparkaleku pribatu egiteko beharra dagoela uste du proiektugileak, eta 400 milioi pezeta pasatxo behar dira horretarako.

Horrez gain, umeak jolasean ibiltzeko guneak, kirolguneak eta berdeguneak egitea ere proposatu da.

Bestalde, LKSren proiektuak aurrera eginez gero, orain arte publikoak izan diren zenbait lursail pribatizatu egingo ditu udalak. Modu horretan, auzotarren erabilerarako utziko ditu hainbat lurzoru; adibidez, Uribarri auzoan asko dira igogailurik ez duten etxebizitzak eta arazo hori konpontzen laguntzeko bidea izan daiteke lurren pribatizazioa.

Oro har, Erguin auzoaren azpiegiturak konpontzeaz gain (ura, telefono hariak eta argindarra), bizilagunei zuzendutako hainbat proposamen ere egin ziren: adibidez, gurpil-aulkietan ibiltzen direnendako egokitzapenak egitea edo zuhaitz gehiago landatzea, gerizpe gehiago lortzeko.



Monterron-Erguin pasealekuak Uribarri auzoan jarraipena izatea proposatu da.

ESKORIATZA ADIN TXIKIKOEN KORRUPZIO KASUA

Kartzelara, gaztetxoen irudiak Interneten zabaltzeagatik

IÑIGO BIAIN

Eskoriatzar batek bi urteko kartzela zigorra jasoko du Interneten umeen irudiak zabaltzeagatik. SGM akusatua fiskaltzarekin akordio batera heldu zen asteazkenean Donostian izan beharreko epaiaren aurretik.

Ministerio Publikoak adintxikikoen korrupzio delitua leporatzen zion SGMri. Fiskalaren arabera, 1999ko urtarriletik aurtengo martxora bitartean akusatua "Dater" ezizenaz konektatu zen sarera eta bere ordenagailuko hainbat fitxategitan jasotako umeen pornografiako irudiak zabaldu zituen Internet bidez. Irudi horiek jasotzen zituztenei, ordainetan, kutsu bereko argazkiak bidaltzeko eskatzen zien. Polizia Nazionalak joan zen martxoaren 30ean atxilotu zuen SGM bere pisuan, Eskoriatzan, eta umeak agertzen ziren hainbat material pornografiko aurkitu zuten poliziek.

LEINTZ GATZAGA

Gatzaren museoak harrera bikaina

I. B

Leintz Gatzagako Gatzaren Ekomuseoak bisitari mordoa izan du joan zen uztailaren 19an ateak zabaldu zituenetik, nahiz eta bisitari kopuru hori nahiko aldakorra den. Museoko arduradun den Nerea Zubietek adierazi digunez, oso zaila litzateke bisitariaren profik jakin bat egitea: ikastoletako umeem autobuskadak, Bilbotik datorren familia edo bailarako erretiratu taldea.

OÑATI GAZTETXOAK ETA AISIALDIA

Oñatiko gaztetxoen hizkuntz erabilera aztergai

Udalak eta MUk hitzarmena sinatu dute

Oñatiko Udalak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak asteazkenean sinatu zuten aurrez adostutako hitzarmena. Hitzarmen horren bitartez, bekadun batek gaztetxoen hizkuntz erabileraren azterketa egingo du herrian. Humanitate Fakultateko ikasle Eneritz Zubiondo lekeitiarra izango da azterketa hau egiteaz arduratuko den bekaduna.

Hitzarmen horren sinatze ekitaldia asteazkenean, goizeko 11,30ean, izan zen udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Angel Iturbe alkatea eta Jesus Garmendia Humanitate Fakultateko dekanoak sinatu zuten hitzarmena.

Azterketa horren helburu nagusia gaztetxoen artean euskarak bizi duen egoera ezagutzea da, behin datuak eskuetan izanda, zein ekintza eta politika abian jarri zehazteko. Eneritz Zubiondo bekadunak bederatzi hilabeteko epea izango du aipatutako azterketa burutzeko.

Euskara Batzordeak bultzatuta, Oñatin bi urtetik behin Laixanek egiten duen kale neurketetan gaztetxoek aisialdian, batik bat, gaztelania erabiltzeko gero eta joera handiagoa dutela ikusi da. Horregatik, gaztetxoen hizkuntza erabileraz azterketa bat egin beharra zegoela ikusi zuten Euskara Batzordean. Gauzak horrela, Mondragon Unibertsitatearekin harremanetan jarri, eta hitzarmen hau sinatzeko erabakia hartu zen.


AISIALDIA ERE AZTERGAI

Gaztetxoengan oinarrituko den azterketa soziolinguistiko hau, hala ere, harantzago doa. Izan ere, gaztetxoen aisialdia ere aztertu beharko du Eneritzek: zer egiten duten aisialdian, nora jotzen duten, gaztelekuaren egoera zein den... Iker Jausoro Euskara Batzordeko buruak honela azaldu digu euren asmoa: "Gaztetxoak, euskara eta aisialdia bat egin, eta hiru elementu horien azterketa osatu bat egitea da gure asmoa".

Zertzelada

Azken urteetan egindako kale neurketek erakusten dutenez, Oñatiko gaztetxoek gaztelaniara jotzeko gero eta joera handiagoa dute.

ANTZUOLA INAUGURAZIO EKITALDIA




Elayren lantegi berria Mexikon. Elayk lantegi bat zabaldu du Mexikoko Guanajuato estatuan. Inaugurazioa azaroaren 10ean izan zen. Bertan izan ziren, besteak beste, Elayko Zuzendaritza Komitearen ordezkaritza bat, Roman Sudupe Gipuzkoako diputatu nagusia, Guanajuato estatuko gobernadorea eta Celaya hiriko alkatea. Guanajuatoko lantegian 50 lagun ari dira lanean, tartean bi antzuolar eta bi bergarar. Dena dela, etorkizunean Mexiko bertakoak izango dira langile guztiak. Lantegi horretan, Antzuolakoan bezala, balaztendako plaketak eta segurtasun-uhalak egiten dituzte, besteak beste. Argazkian, Guanajuatoko Celay lantegi berria.

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 34



- Gurpildun aulkiak
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko garabiak
- Komun-aulkiak
- Eskaren aurkako aire eta ur koltxoiak

Zabalik



GERARDO MARKULETA

Tango Durango edo zure-etxeko-liburuak.non

Ez zurekin ez zu barik dakoi, ene Durango-fandango, nire kultur kezkek lasaibiderik.

Hor ageri zara, zenbaki gero eta potoloagoz jantzia, gero eta distira gehiagorekin paper-pantaila-uhinetan, gero eta txanpon, interes, potrokolo gehiago euskal liburu eta diskoen inguruan.

Eta ni –txiki-txikitatik ttiki izanik– ttikitasunen eta txikikerien maitale amorratua izan: hortik herri honetan euskaltzale izatea, hortik edozein herritan literatura eta poesiarako zaletasuna izatea.

Aspaldiko lagunen aspaldiko besarkada, albiste eta proiektu berrien berri txikiak maite ditut gehien Durangoko bestelako gehiegikerien artean. Sekula ez da musu gehiegi, besarkada gehiegi, adiskide gehiegi izaten.

Leku txikietan egindako irakurraldi txikiak; literatur eta musika sortzaile, bitartekari eta idazleen arteko hartu-emanetarako lasterbideak; liburu-disko-komiki-CD-rom historiko edo berezien erakusketak; urtean zehar izandako literatur gertakarien labur-bilduma multimediatikoak; kantautore eta kantuetako hitz-egileen arteko bilera jendaurrekoak; poesia errezitaldien azoka...


Boteprontoan botatako ekimenok, eta litezkeen beste hamaika, egiteko giroa eta ingurua eskaintzen duzu, urtean-urtean, urtean urteko agintarien eta eguraldiaren mende, Durango-fandango nirea. Benetan ez dago erakunde ofizial, ez-ofizial, kontraofizialen artean horretarako dirua jarriko duenik?

Ez zurekin ez zu barik dakoi lasaibiderik nire kultur kezkak, Durango-fandango maitea.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@topagunea.com



Bergarako Kultura Etxeko bideoteka dela eta

Bergarako Kultura Etxean orain arte funtzionamenduan egon den bideotekako gelaren zerbitzua kendu du Udalak. Hau dela eta, Bergarako Gazte Asanbladak bere harridura eta adostasun eza adierazi nahi ditu. Asanblada honek makina bat aldiz erabili du bertako materiala, Gazte Lokalaren inguruko proiektua aurkezteko egin zen bideoa lantzeko, esaterako.

Gure ustetan horrelako zerbitzuak ixtea atzera joatea da; udalak eman dituen ixtearen arrazoiak pisu gutxikoak iruditzen zaizkigu eta, era berean, itxi ordez, gaur egungo teknologia berrietara egokitu eta zerbitzu hobeak eskaintzen saiatu beharko litzateke.

GAZTE ASANBLADA
Bergara

Bidezko merkataritzaren inguran hausnarketa

Gaurkoaz bidezko merkataritzaren inguruan hausnartzeko erabilitako tarte honi amaiera emango diogunez, azken bost asteetan landutako ideiak laburbiltzeko aukera ona iruditu zaigu. Era labur-laburrean ondorengoak aipatu izan ditugu:

Gaur egungo gizartean geroz eta gauza gehiago dira enpresetan (eta ez erakunde publikoetan) erabakitzen direnak. Enpresen jokaera ezin dugu hauteskunde bidez kontrolatu, baina bai gure erosketen bidez.

Erosten dugun gauza oro norbaitek egin du eta gu ere ez gara kontsumitzaile huts, langile ere bagara. Kontsumitzeko orduan munduko langile guztien eskubideak errespetatzearen alde egiten ez badugu, gure langile izaeraren aurka arituko gara.

Ez gaitezen gera besteek arazoak konpon ditzaten zain. Bidezko merkataritzak bidegabeko egoera gaizto horri erantzun bat eman nahi dio eta guztiok lagundu genezake bide horretan. Etsipen erosotik irten eta ekiogun bideari.

Gogora dezagun bidezko merkataritzak ez diela Hirugarren Munduko pertsonei karitatez lagundu nahi. Eurena den, bidezko den arren, gaur egungo sistemak ukatzen diena besterik ez diela eman nahi.

HARREMAN, BIDEZKO MERKATARITZA DENDA

AEK aurrera, euskara aurrera

Garzon epaileak azken autoan egindako salaketen inguruan, AEK elkarteak honako hau jakinarazi nahi du:

1. AEK-k ez dauka inolako loturarik ez ETArekin, ez eta euskararen irakaskuntza eta promozioarekin zerikusirik ez duten bestelako erakundeekin ere.

2. Autoan agertzen diren 19 lagunen artean batzuk AEK-ko kideak dira, beste batzuk AEK-ko kideak izan dira eta orain ez dau-de, eta zenbaitek ez du inoiz inolako harremanik izan AEKrekin.

3. AEKren egiteko nagusia euskara irakatsi eta gure hizkuntzaren zabalkundea sustatzea besterik ez da. Horrez gain, bestelako egitasmoak abian jarri ditugunean, xede horiei begira edo gure ohiko jardueran aurrera egiteko baliabide ekonomikoak eskuratzearren bideratu ditugu.

4. ETA erakundearekin zerikusirik ez dugula argi dago, eta epaileak egindako bestelako salaketen gainean, honako puntuak argitu nahi ditugu:

• AEK-k ez du inolako langilerik izan, harik eta Eusko Jaurlaritzarekin AEK-ko kideen laboralizazio prozesua bideratzeko hitzarmena izenpetu zen arte.

• Langilerik egon ez bada, nekez egin dakioke iruzurrik Gizarte Segurantzari.

• BEZari dagokionez, nola egongo da ordaindu barik, bada, irakaskuntzan ari den erakunde batek ordaindu behar ez duen dirua? (irakaskuntzari loturik dauden jarduerek ez dute, legez, BEZik sortzen).

Hau guztia kontuan hartuta, inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi dugu gure errugabetasuna. Izan ere, gure delitu bakarra euskaltzale izatea da, hori inoiz delitua izan bada.

Azkenik, zera eskatu nahi dizuegu, orain arte bezala segi dezazuen euskal kultura eta gure hizkuntzaren defentsan. Bakoitzak egin dezakeen ekarpena eginez, euskara ikasiz, euskara erabiliz, euskaraz bizi ahal izateko bideak zabalduz...

Guk, gure aldetik, ahal dugun guztia eta gehiago egingo dugu eraso politiko judizial honetatik indartsuago ateratzeko eta gure eguneroko lanean euskara irakatsi eta sustatzen segitzeko.

Elkartasuna adierazteko: elkartasuna@aeknet.net

AKULU AEK EUSKALTEGIA
Bergara

Komikia

MIKEL ARROIABE




Eztabaida

Datorren asteazkenean 22 urte beteko dira Espainiako Konstituzioa onartu zela. 1978ko Konstituzioaren erredakzioan ez zuten abertzale euskaldunek parte hartu eta horrek eragina izan zuen; izan ere, hego Euskal Herrian ezezkoa izan zen nagusi. EAJk abstenitzeko dei egin zuen. EEk ezetza eskatu zuen. Gaur egun, oraindik, eztabaidagai da Konstituzioa. Espainian onarpen zabala lortu duela esan daiteke. Hemen, berriz, beste inon baino gehiago dira Konstituzioaren kontrakoak.

Datorren asteazkenean da Konstituzio eguna. Ospatuko duzu?

Bai, estatuko herrialde guztietan ospatu behar da



FRANCISCO JAVIER GARAI
PSE-EEko zinegotzia Bergaran

Bai, nik Konstituzio eguna ospatuko dut, azken urteetan bezala. Bi arrazoirengatik, batik bat: batetik, jai eguna delako eta lan-egutegian horrela jasota daukagulako; bestetik, horrelako egun seinalatu bat jaiegun izatearen alde nagoelako, hau da, Konstituzioaren aldeko naizelako. Beraz, Estatuko herrialde guztietan ospatzea ondo ikusten dut.

Konstituzioari esker erregimen batetik bestera pasatu ginen: Francoren diktaduratik monarkia parlamentariora. Konstituzioak demokrazia ekarri zigun eta horri esker herritarrek hartu zuten hitza, alderdi politikoen bitartez.


Bestalde, Konstituzioak egonkortasuna ekarri digu; hiritarron arteko elkarbizitza eta eskubideak bermatzeko araua izan da.

Horrez gain, ezin dezakegu ahaztu Konstituzioak ekarri zuela Estatutua eta horri esker Euskadik inoiz ezagutu duen autogobernu mailarik handiena duela gaur egun.

Hala ere, aitortu behar da Konstituzioak Euskadin ez zuela gehiengoaren onarpenik izan, baina beste garai bat zen. Gaur egun jende gehiagok onartuko luke, orain Konstituzioarenganako jarrera zabalagoa dagoela uste baitut.

Euskadik bizi duen gatazka politikoa gainditzeko, tresna egokia izan daiteke Konstituzioa: guztiak mahaiaren gainean bildu eta kontsetsuaren bidetik irtenbideak aurkitu.

Galderak erantzun erraza du: ez duguna, ezin ospatu



XABIER ZUBIZARRETA
Arrasateko Alkatea

Galdera interesgarria! Abenduaren 6a, bolo-bolo eta San Nikolas eguna, eskolatik piper egin eta atez ate "San Nikolas koronado... neskei/mutilei bapez/dana" kantuz eta eskean ibiltzeko eguna zen gure artean. Bat-batean, jaiegun (geurea ez den Konstituzio baten eguna) bihurtu zen eta akabo! Piper egitearen grazia galdu du. Hala ere, Euskaldunon Egunkaria ere egun horretan sortu zitzaigun. Eta Durangokora joateko, zein egoki!

Baina, beste gai askotan bezala, arrotz izan beharko zitzaigukeen eztabaida mahai gaineratu digute. Euskaldun bezala galderak erantzun erraza du: ez duguna, ezin ospatu. Galdera areago litzateke zernolako Konstituzioa nahi dugun? Gero erabakiko dugu noiz, eta nola, ospatzen dugun.

Elkarbizitzaren oinarri nagusi eta orokor bezala osatu ohi den itun hori bi modutara egitura daiteke: bataren arabera, Gorte Nagusi edo Parlamentu batek onartzen duen arau bilketa bat litzateke, modu bateko edo besteko inspirazioz egina. Erromatar tradiziokoen antzera. Bestearen ildotik, Herri horrek historian zehar izan dituen ohitura, eskubide eta abarren bilketa izango litzateke. Anglosaxoien ildokoa berau.

Biak izan daitezke baliagarri. Baina, Euskal Herriari hobeto egokituko litzaioke bigarrena. Eta desobedientzia zibilerako egoki baino egokiagoa da gaia. Sinbologia ikaragarria du eta euskal herritar oro, instituzioak buru, inplikatu behar da kontu horretan.

Udalbiltza...!

Bide berriak urratzeko aukera

Zuzenbide estatu batek arauak behar ditu eta arau horiek, guztion betebehar eta eskubideak bermatzen dituzten arauak, Konstituzioan biltzen dira. Euskaldunok eta Estatuko gainerako herrialdeek 1978ko Konstituzioa daukagu. Askatasuna ekarri ziguna, Estatutua ekarri ziguna, iritzi eta ideologia ezberdinekoak biltzen dituena.

Egia da Euskal Herrian, batez ere, batzuk ez daudela konstituzio horren alde. Estatutua gutxiesten dutenak ere badira.

Konstituzioak baditu bideak aldaketak egiteko. Beraz, Konstituzioa salatzea baino, bide horiek urratu eta konponbideak, kontsentsuz, aurkitzeko saikerak egin beharko lituzkete gure politikoek. Ni Konstituzioaren aldekoa naiz eta ospatu egingo dut; nola ez, bada, jai eguna izanda.

Juanan Gallastegi / Bergara

Abenduaren 6an lanera noa

Horrela erabaki genuen joan den urtean. Egutegia egiten ari ginen langileen artean eta "Zergatik ospatzen dugu Konstituzioa? Jaiegunak izateko bakarrik! Zergatik ez dugu Estatutua ere ospatzen?" entzuten ziren. Bozkatu eta gehiengoak ez ospatzea erabaki zuen. Gure herrian Konstituzioaren jaia ospatzeak arrazoi logikorik badauka? Nire ustez, ez.

Igor Aldekoetxea / Arrasate

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — **Iritzia emateko: berrigara@topagunea.com**

Beharrezkoa da Lastertasun Handiko Trena Debagoienerako?

Gora eta Behera

KORRIKA 12

Aste honetan aurkeztu da Korrika 12 eta nabarmentzekoa da, euskararen aldeko mugimenduak indartsu eta bizirik dirauelako. Era horretako ekimenak eta beste askok erakusten dute euskarak jarraitzaile asko dituela eta bizirik irauteko lan handia egiten dela, nahiz eta batzuk ahalegin berezia egin itxaropen hori zapuzteko.

BEHI EROAK

Behi eroen zalaparta hau guztia produkzio bateratzaile eta menpekotzaileak sortarazi du eta oraingoan txahalak diren bezala, lehen oilaskoak izan ziren. Gero? Kontu horretan kontsumitzaileak gara kaltetu nagusiak, merkatuak jartzen dituen prezio merkeek eraginda "naturala" baztertuz eta garestituz doalako.



NEREA ZUBIETE
Leintz Gatzagako Gatz museokoa

Koplak

Kaixo, Goienkaria

Debagoienean banatzekotan
sortu den astekaria,
berri iturri berri bat dugu
gurekin Goienkaria.

Eskuetan duzu irten berria
lehendabiziko alea,
lan honek orain zu behar zaitu
astero irakurlea.

Berriak bildu nahiko lituzke
bederatzi herritatik,
ingurukoen berri jakin ahal
izango dugu bertatik.

Hizkuntza ere bereziten zaigu
Gatzagatik Bergarara,
Ez Gipuzkera, ez Bizkaiera
geurean ariko gara.

Aramaixo ere tartean dugu
herri bat Arabakua,
berezitasun bat gehiago hau
lehen ez bagendun nahikua.

Hasieratikan jartzen bazaio
behar dan beste arreta,
urte askoan jarraituko du
ohitu egingo gara eta.

JESUS KORTABERRIA "KAXETA"

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar
SAILETAKO ARDURADUNAK
Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer, Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
KOMERTZIALAK
Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran
MAKETAZIOA
Goio Arana, Maddi Trutxuelo, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


GOIENKARIA
Ostirala / 2000ko abenduaren 1a

Ongi etorri, Goienkaria!

ARRASATEN EUSKARA MAITEEN

ARRASATEKO UDALA

Igandean Bergaran izango da, alderdikideekin batera, Batzoki berria zabaldu zela 20 urte betetzen direla ospatzeko. 68 urte dituela aitortu arren, eta beldurra diola "txolinduta" gelditzeko arriskuari, Arzalluzek gauzak argi esaten ditu. Sabin Etxean hartu gaitu.



ENEKO AZKARATE

MARIJO DEOGRACIAS

Xabier Arzalluz

EAJko Euzkadi Buru Batzarreko Presidentea

"Su-etenean jendea beldurrik gabe bizitzera ohitu zen. Ahaztu egin zaigu zer izan zen ETA"

LEGEBILTZARRA

"Borroka polita litzateke oposizioaren eta gobernuaren artekoa, baina eurek alde dituzte komunikabideak eta guk ez"

ABERTZALETASUNA

"Orejak bezala Francok ere sekulako kaltea egin zigun, baina abertzaletasuna sendotu egin zen"

Debagoiena hazkunde ekonomiko handia duen bailara da; baina, zelan ikusten da Debagoiena kanpotik?

Kooperatibismoaren sortzaileak apolitikoak izan ziren. Ormaetxea, esaterako, hainbeste urtean agintzen egon dena, ez dut esango pertsona politizatua denik; ez dut uste abertzalea denik ere. Gorroño EAJ ingurukoa izan da, baina buru zirenak ez dira afiliatuak izan. Dena dela, Mondragoeko mundua beti izan da HBren ingurukoa. Bergara beti izan da EAJren aldekoago. Gero EA sartu zen eta Aretxabaletan nagusi izan zen.

Bestalde, Arrasate oso berezia da; beti izan da berezia. Ajuriagerrak kontatzen zuen, Arrasateko komandante famatu baten gainean, "gerra amaitu da" esaten zuela Arrasate erori zelako. Horregatik diot Arrasatearren pentsamoldea berezia dela. Gero, hor dago Oñati, Gipuzkoa sortu zenean kanpoan geratu zena.

Zein izango da Bergarara eramango duzun mezua?

Hori bezperan gertatzen dut, "egun bakoitzak bere pena". Gutxi gorabehera, lehengo kontuak gogora ekarriko ditugu. Jendearekin kontaktua izatea dut gustuko; batzokietan egia osoa kontatzen dut eta EAJren Batzar Nazionalean eztabaidatzen diren gauzak esaten ditut.

Aste honetan urtea bete da ETAk su-etena hautsi zuenetik. Epe horretan oso gogorra izan da ETAren erasoa.

Nik ez dut uste gogorrago hasi denik ETA. Su-etenaren garaian jendea beldurrik gabe bizitzera ohitu zen eta badirudi ahaztu egin zaigula zer izan zen ETA. Su-etenaren aurretik Aznarrekin egon nintzen eta zerbait mugitzen ari zela esan nion, eta harreman guztiak hautsi genituen bera hauteskunde-interesei begira zegoelako. Argi adierazi nion Aznarri: "Guretzat hau oso garrantzitsua da; egoera hau sufritzen dutenak gu gara, batzuen eta besteen gurasoak, enpresariak hemengoak dira, gure gazteria da tiroka dabilena edo tentatua dagoena. ETAren arazoa hemengo gizarteak bizi du". Ez da lehenengo aldia Euskal Herriak egoera hau bizi duena. 1841ean, I. Karlistaldia amaituta, foruak kenduz gero, euskaldunok independentziaren bila joango ginela esaten zen. Hori ez dute ikusten Madrilen. Aznarrek ez du nahi benetako konponbiderik.

Baina, pertsona bakar baten esku dago Madrilen erabakia?

Aznar alderdi autokrata baten buru da. Fragak sortu zuen PP eta bere neurrira egin zuen, jakinda Espainiako eskuindarrak oso kanibalak zirela. Aznarren inguruan badago jendea ez dagoena ados gurekiko egiten duen politikarekin, baina nahiz eta ados ez egon, ez dute txintik esaten "jefea" delako. Epe luzera horrek ez du iraungo. Guk (EAJ) denbora txarrenak pasatu ditugu eta Aznarri, berriz, bukatu zaizkio unerik gozoenak. ETAri buruzko datuak ez dauzkat. Horretaz aritzea arinkeria litzateke. Ez dugu kontakturik izan eurekin eta uste dut HBkoek ere ez dakitela ezer. Ezker abertzalean ez dakigu zer gertatzen den. Zalantza asko daudela esango nuke, baina badago egonezin bat eta zerbait pasatu beharko da.

Hala ere, gauza bat badakigu: PP eta Aznar zaldi gainean datozela gure kontra.

Eta herritarrak prest ikusten dituzu zerbait egiteko?

Jendea gero eta gehiago "dolarrera" dago eta gero eta kemen gutxiago izango du. Eta Mayor Orejaren kalkuluak horiek dira. Baina, porrot egin du. Francok ere sekulako kaltea egin zigun, baina abertzaletasuna sendotu egin zen.

Eta sozialistak non kokatzen dira?

Sozialistak "zisko" eginda daude. PPren menpean dauden komunikabideek zabaldu dute ETA eta EAJ batera doazela, helburuak berberak direlako. Hainbeste zabaldu dute mezu hori, ze PSOE lotuta dago.

Noiz arte segituko du Gasteizko gobernuak gutxiengoan? Entzuten da datorren udaberrian hauteskundeak deituko dituela lehendakariak.

Nire iritziz lau urte egin beharko lituzke Ibarretxek lehendakaritzan. Parlametu txikian gaude, HB ez doalako. Egia da oposizioak lege proposamenak-eta aurrera atera ditzakeela, Ibarretxe berea ez den parlamentu bateko gestore bezala utzita. Hor dago koska: zenbateraino jasan leiken hori. Oso borroka polita litekeen oposizioaren eta gobernuaren artekoa, baina eurek alde dituzten komunikabideak guk ez ditugu.

Jendeak uste du Arzalluzek agintzen duela, baina Ibarretxeren erabakia da hauteskundeak deitzea. Garbi daukat gaur egun Ibarretxek daramala EAJren politikaren pisurik handiena. Euzkadi Buru Batzarrarentzat ez da praktikoa, ezta zentzuduna ere, Ibarretxeri eskatzea sinisten ez duen gauza bat egin dezala.

Hauteskundeak izango balira, honako hiru hipotesi hauek hartu beharko genituzke kontuan: lehenengoa, EAJ alderdi indartsuena ateratzea; bigarrena, abertzaleek gehiengo osoa izatea; hirugarrena, HB izango ez den legebiltzarrean EAJ, EA eta Ezker Batua besteak baino gehiago izatea. Lehenengo biak aterako direla ez daukat dudarik, baina azkenengoa?

ETAk beste su-eten bat iragarriko balu, posible litzateke berriz abertzaleen arteko batasuna?

Lehengora itzultzea ez litzateke posible izango. ETAk behin betiko su-etena iragartzen ez badu, eta gauzak ez badira behar bezala planteatzen, ez dut ikusten konponbiderik. Nik uste dut astakeria dela herri honetan abertzaleek bakarrik egitea gauzak. Badakigu gure biztanleriaren erdia zelakoa den, eta horretaz luze hitz egin beharko genuke.

Askotan aipatu duzu gaur egun ia komunikabide indartsu guztiak PPren eskuetan daudela. Abertzaleei zer gelditzen zaie?

Oso larria da gertatzen dena eta jendeak ez dio ematen horrek duen garrantzia. Eta gu hain erradikalak gara, hain geurekoiak... Hainbat dauzkagu: Gara, Deia, Euskaldunon Egunkaria eta datozen guztiak..., eta bakoitza bere aldetik. Hemen bi mundu daude, eta biak txikiak. Baina, zeinek agintzen du? Gipuzkoan DVk eta Bizkaian El Correo Españolek. Eskerrak EITB daukagun, baina horren bila ere badabiltza. Dena dela, ETB zenbatengana iristen da? Gu ere Madrilgo alfonbrapean gaude informazioari dagokionez.

Herri aldizkariak ere hor daude.

Hala ere, horrek akats bat dauka: zuek Goienkaria egingo duzue Debagoienean, baina seguruenik Gara edo Deiaren irakurleengana helduko zarete. Egia da, doan banatzen direnez, herri aldizkariak jende gehiagorengana iristen direla, baina arazoa da zelan iritsi besteengana. Kontua da jendea zurekin daukazun edo ez.

Azkenean, kapitalak ez daude gurekin, ez HBrekin ezta gurekin ere. Eta, gainera, ez dugu negozioetarako balio. Gure egunkariek ez dute negoziorik sortzen.

Prentsa abertzaleak porrot egin du?

Garai batean izan genuen DVren akzio mordo bat erosteko aukera, baina ez geunden horri aurre egiteko moduan. Erosi izan bagenitu, DV beste era batekoa izango litzateke gaur egun. Ez dakigu gauzak negoziatzen; gehiegi ideologizatzen ditugu. Merkatua ahaztu egiten dugu. "Bezeroen satisfakzioaz" gehiago dakite eurek.


Urte asko daramatzazu politikan. Baina, noiz arte?

Erretiratuta egon beharko nintzateke, baina kargua ez uzteko eskatu zidaten. Ardanza bazihoanez, biak batera ezin gintezkeela joan, eta ni gelditu egin behar nintzela. Damututa nago. Bestalde, iaz utzi nion eskolak emateari, 30 urte eta gero. Pentsatzen nuen izugarrizko pena izango nuela, baina ez dakizue zein ederki bizi naizen.

Podiuma

Bixente Pagaldai |MARATOILARIA|

Bixente Pagaldai angiozartarrak (52 urte) Donostiako maratoiaren ekitaldi guztiak amaitu ditu. Domekan jokatutakoa XXIII. ekitaldia zen eta Pagaldaik 3 ordu eta 10 minutu behar izan zituen proba amaitzeko. Bere markarik onena 1984an egin zuen (2 ordu eta 29 minutu).



Bixente Pagaldai.

"Hasierako urteetan *foooting* egitea modan zegoen eta Donostiako maratoia askoz ere herritarragoa zen"

"Maratoian sufritzailea ez bazara, jai daukazu. Heltzen da puntu bat inertziagatik egiten duzula korrika"

Gogoratzen duzu lehenbiziko maratoia, 1978koa?

Bai, horixe! Orduan ere makina bat sufritu genuen! Garai hartan *footing* egitea modan zegoen eta proba gaur baino askoz ere herritarragoa zen; jende gehiagok parte hartzen zuen. Handik urte batzuetara partaidetzak nabarmen behera egin zuen eta badirudi orain proba berpizten ari dela. Hasieran giro hobea zegoen.

Niri mutikotatik gustatu izan zait korrika egitea, eta lehen aldiz Donostiako maratoia antolatu zutenean ez nuen bi aldiz pentsatu. Koadrila bat ibiltzen ginen elkarrekin entrenatzen eta gure artean motibazio handia zegoen. Gure arteko giro hori, urtetik urtera, zoritxarrez, galduz joan da eta orain bakarrik entrenatzen naiz gehienetan. Nahiko gogorra da.

Noiz arte jarraitzeko asmoa?

Hogeitabosgarren edizio bukatzea gustatuko litzaidake. Beraz, beste mi maratoi egitea falta zait. Ez dut uste hortik aurrera jarraitzeko gogoa izango dudanik... Oso proba neketsua da eta denbora behar da ondo gertatzeko.

Noiz hasten zara maratoia gertatzen?

Udaberri aldera, nire erritmora. Lehen gehiago entrenatzen nintzen orain baino. Astero 100 bat kilometro egingo ditut gutxi gorabehera.

Aurten, tartean apostu bat ere egin zenuen...

Bai, azaroaren hasieran Angiozarretik Itziarreko elizaraino korrika joan nintzen. Jose Luis Aizpurua lagunak hiru ordu eta 20 minutuko tartea ematen zidan eta 2 ordu eta 53 minututan egin nuen. Hala ere, ez dakit saio horrek kalte egin didan, domekan, azken kilometroetan, nahiko justu ibili bainintzen.

Zein da maratoia korritzeko beharrezko koalitatea?

Sufritzen jakitea. Sufritzailea ez bazara, jai daukazu. Heltzen da puntu bat inertziagatik egiten duzula korrika, azken kilometroak, batez ere, oso gogorrak egiten direlako. Proba luzeegia da maratoia eta indarrak ondo neurtu behar dira.

Anekdotaren bat izango duzu...

Orain dela hamar bat urte-edo, maratoia bukatzeko zazpi kilometro falta zirela, lehertuta geratu nintzen, sekulako *pajara*rekin. Banku batean etzan eta lo hartu nuen. Handik ordu laurden batera-edo esnatu eta proba bukatzea lortu nuen.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Agustin Arantzabal "Gaztelu"
Realeko jokalaria (1967-1981)



BENITO CANTERO


Realak bere lehenbiziko liga eskuratu ondoren erretiratu zen Gaztelu, 34 urterekin. Reala 2. mailan ari zela, 1967ko urtarrilaren 29an debutatu zuen txuri-urdinekin, Algecirasen, kopako partidu batean, Andoni Elizondo entrenatzailearen eskutik. Aurretik, Sansen urtebete eman zuen Xabier Expositoren aginduetara.

Bergararrak Realeko garairik onenak ezagutu zituen. 1973-74 denboraldian lehen aldiz Europan jokatzeko sailkatu zen Reala eta 1981eko apirilaren 26an txuri-urdinek liga irabazi zuten Gijonen, azken partiduko azken minutuan Zamorak lortutako golari esker. Partidu hori jokatzerik izan ez zuen arren, bere kirol ibilbideko oroitzapenik onenetakoa dela aitortu digu. Era berean, Realak 1976ko abenduaren 5ean Atotxan eskaini zion omenaldia gogoan dauka. Ikurrinaren derbian Realak 5 eta 0 irabazi zion Athletici eta Gazteluk bi gol sartu zizkion Iribarri (beheko argazkia partidu horri dagokio, Gazteluk Agustin bere semea besoetan duela). Berak esaten duenez, "atezain kenduta, postu guztietan jokatu nuen, baina erdialdean aritzen nintzen erosoen". Lesioen erruz, ez zuen Euskadiko selekzioarekin jokatzerik izan, eta Espainiakoarekin, berriz, bi partidu jokatu zituen, Kubala hautatzaile zela.

Gazteluk esaten duenez, "erretiratzeko garaia heldu zitzaidanean futbolarekin psikologikoki nekatuta nengoen. Lesioekin ere dezente sufritu nuen eta lagatzea erabaki nuen, jarraitzeko ilusiorik ez nuelako". Entrenatzaile izateko aukera aztertu zuen, baina, bere hitzetan, "izaera gogorrekoa naiz eta horrek arazoak ekarriko zizkidala ikusi nuen". Bere anaietako batekin Gaztelu burdindegia ireki zuen eta gaur egun ere bertan ari da lanean. Aisialdian familiarekin egotea eta ehizara joatea gustatzen zaio.

Futbola gertutik jarraitzen du eta partiduetan semeagatik eta Realagatik asko sufritzen duela dio. Bere iritziz, gaurko Realari izaera falta zaio eta Periko Alonso Reala zulotik ateratzeko entrenatzaile egokiena dela uste du. Etxeko jokalarien aldekoa da, baina gaurko futbolean nahiko gaitza ikusten du hori, "zaleek taldea goian ikustea nahi dutelako eta lehiakortasuna izugarria delako".

EDU MENDIBIL





Nire Pronostikoak

AITOR ELKORO / Pilotaria

Nire ustez, Eugi, Nagore eta Unanueren artean izango da aurtengo lau t´erdiko txapela. Pilotalekuek zerikusi handia izango dute, eta, finalerdiak edo finala Gasteizko Ogetan jokatuz gero, Unanuek eta Nagorek aukera gehiago izan ditzakete, pilota pisutsuekin hobeto moldatzen direlako Gasteizen. Eugi, Titin, Nagore eta Unanue izango dira finalerdietan ziurrenik. Futbolean, bestalde, Alaves eta Athleticen arteko euskal derbian gasteiztarren alde egingo nuke, aurten oso ondo ari direlako eta Athleticek etxetik kanpo ez duelako gauza handirik egin. Realak ere beharrezkoa du garaipena eta ea domekan irabazten duen...

Astebukaera honetako partidak

A/	Reala	2	Las Palmas	0
B/	Alaves	1	Athletic	0
C/	Unanue	22	Errandonea	15
D/	Nagore	22	Retegi	10

Unanue eta Errandonea aurrez aurre lau t´erdiaren barruan

Arrasaten eta Bergaran pilota jaialdiak astebukaeran

EDU MENDIBIL

Lau t´erdiko txapelketaren barruan, Unanuek eta Errandoneak indarrak neurtuko dituzte bihar, larunbata, Bergarako Udal Pilotalekuan. Pilota jaialdia 16:30ean hasiko da. Lehenbizi Ariznabarreta-Imaz eta Agirre-Rai bikoteak izango dira aurrez aurre eta jarraian Unanuek eta Errandoneak jokatuko dute. Nafarrari irabaztekotan, Unanue finalerdietarako sailkatuko litzateke, baldin eta Nagorek Retegi II.ari irabazten badio. Unanuek ere bere aukerak izango lituzke, Nagorek Retegiren aurka 12 tanto baino gutxiago lortzen baditu. Kasu horretan, Unanuek gutxienez 22 eta 9ko emaitzarekin irabazi beharko lioke Errandoneari. Dena dela, Asegarceko ligaxkan Nagore eta Retegi dira finalerdietarako sailkatzeko aukera gehien dituztenak. Azken jardunaldian Nagorek Unanueri irabazi zion eta Retegi II.ak Errandonea mendean hartu zuen.

Zapatuko jaialdia amaitzeko, Gorostiza-Galartza VI.a eta Retegi VI.a-Galartza IV.a bikoteen arteko partidua izango da.

Bestalde, *Egunkaria*ren 10. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, pilota jaialdia izango da gaur, eguakitza, 22:30ean, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Bi partidu iragarri dira: aurrenekoan Gonzalez-Irigoien bikoteak Xala-Otxandorena bikotearen aurka jokatuko du eta ondoren Goñi II.ak eta Bernak Olaizola II.a eta Goñi III.ari aurre egin beharko diete.

Antzuolan, berriz, herri mailako eskuz binakako txapelketako finalerdiak jokatuko dira bihar, zapatua, goizeko 10etatik aurrera.

RICHARD FERNANDEZ GARAILE

Atletismoan, domekan, Donostiako maratoiaren barruan, minimaratoi proban Richard Fernandez oñatiarra izan genuen garaile. Korrikalari oñatiarrak 30 minutu eta 47 segundoko denbora egin zuen domekako lasterketan, sasoi onean dela erakutsiz. Fernandezek minutu bat eta 36 segundoko aldea atera zion bigarren postuan sailkatu zen Carlos Sebastiani.

GRUPO ARKAUZ
1950-2000



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK
Araba etorbidea, 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



ARKAUZ
ALTZARIAK
Araba etorbidea, 20
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK
Asunción, 1
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA
expert



ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA
Mitarte, 3
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
FAGOR

50 urte
gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

fordmondeo 2000 berria
lider naturala



Motor berriak:
TDdi - 90 cv
TDdi - 115 cv
1,8 i - 125 cv
2,0 i - 145 cv
2,5 i - 170 cv

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es
Ford

E. Otsoa Gatz museoa

GATZ MUSEOA
Neguko ordutegia

Asteburuetan eta jaiegunetan 4 bisita
Goizez: 11:30ean
12:30ean

Arratsaldez: 16:00etan
17:00etan

Astegunetan taldeekin lan egingo dugu. Informazioa eskatu eta erreserbak egiteko telefonoak:
943 71 47 46 / 943 71 47 92



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA





Lehena eta geroa lotuaz,
aurrera goaz.

Zatoz ikustera!

elay Taldea

ELAY INDUSTRIAL, S.A.
(Antzuola)

elay Taldea

TROKELAY, S.A.
(Antzuola)

elay Taldea

SEYTRA, S.A.
(Antzuola)

elay Taldea

ELAY, S.A.
Lizarragako hiribidea z/g. 20577 ANTZUOLA
Tf. 943 76 61 00. Faxa 943 76 62 62

balzers

BALZERS-ELAY, S.A.
(Antzuola)
BALZERS MEXICO,
S.A. de C.V.
(Mexiko)

elay Taldea

ELAY DEUTSCHLAND, Gmbh
(Alemania)

elay Taldea

CELAY, S.A. De C.V.
(Mexiko)

Goienka 2a

Ostirala / 2000ko abenduaren 1a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 1etik 7ra

35. Euskal Liburu eta Disko Azoka


Pauso guztiek DURANGO helmuga

Datorren martitzenean, abenduaren 5ean, irekiko ditu ateak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak. Eta hogeita hamabosgarren aldiz izango da. Saltoki gutxiago egongo diren arren, inoiz baino liburu eta disko gehiago bilduko dituzte Durangoko Merinaldeko Adizkideen Gerediaga elkartekoek, hori da-eta Durangoko azoka antolatzen duen elkartearen izena. Bostean hasi eta 10a arte, Euskal Herrian edo Euskal Herriaz ekoiztu den kultura eskaintzarik zabalena ikusteko aukera izango dugu. Ikusteko, entzuteko, aukeratzeko eta, ahal denean, erosteko. Izan ere, Euskal Liburu eta Disko Azokan kultura arloan Euskal Herrian salgai den negozioaren %15 egiten da. Eta ez da ez marka txikia! Egia esan, Durangoko eskaintza paregabea da urtean zehar erosi ez dugun liburu edo diskoa erosteko. Eta argitaletxeek eta diskoetxeek ere badakite hori. Hori dela eta, asko dira euren lanak prest izatea erabakitzen dutenak azokan erakusteko.

Jakina, aitzakia ere ez da txarra abenduko zubia lagunekin igarotzeko, horretarako aukera ere bada-eta Durangon egunotan. Baina, helburua da etxera zerbait eramatea. Badakigu ez dela aukerarik onena izaten liburuak ongi aukeratzeko edo diskoak tentuz entzuteko. Hori aldez aurretik egin behar da; eta ondoren, Durangora joan eta erosi: Gabonetarako liburu eta disko bana, egutegia, agenda... eta antzekoak, jakina.

20 aldizkari, 395 liburu eta 57 disko 235 saltokitan banatuta. Guztiak aukeran. Eta hori guztia gutxi balitz, erakusketak eta bestelakoak ere egongo dira; horietako bat Guttenbergen jaiotzaren 500. urteurrena gogoratzeko antolatu dute. Felix Aranburu artisauak ere papergintza eta liburugintzaren gaineko gune berezia antolatu du.

MARIJO DEOGRACIAS



GOIO ARANA

Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

ERAKUNTZA

1989ko martxoaren 20an eratu zen Gasteizen Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa, Eusko Legebiltzarrak indarrean daukan Euskadiko Kooperatiben legearen, 1/1982 otsailaren 11koa, babespean.



FEDERATUTA DAUDEN KOOPERATIBAK


1999ko ekainean federatuta dauden kooperatiba kopurua **351**koa da, lurraldeka banaturik:

- Araba 61
- Gipuzkoa.....156
- Bizkaia 134

LANGILE BAZKIDEAK

351 kooperatibek **23.532** langile-bazkide dituzte. Lurraldeka banaturik:

- Araba 1.584
- Gipuzkoa.....16.695
- Bizkaia 5.253



ZERBITZUAK

Federazioko kooperatibek ondorengo zerbitzuak dohainik hartzeko eskubidea dute:

- Erakunde-ordezkaritza
- Kudeaketa-tresnak diseinatzea, adibidez:
  - Urteko Kudeaketa Planak
  - Kostuak kontrolatzeko sistemak
  - Jendearen poztasun-maila neurtzekoa
  - Kudeaketaren kalitatea aztertzekoa
- Prestakuntza tekniko eta kooperatiboa
- Merkataritza eta Kreditu Zerbitzua
- Aholkularitza eta informazioa:
  - Juridikoa
  - Soziala
  - Ekonomikoa
  - Zergei buruzkoa
  - Finantzarioa
- Finantza eta komunikazio erakundeekin lankidetza-hitzarmenak lehentasunezko baldintzetan



FEDERAZIOAREN PRINTZIPIOAK

- Federatutako kooperatiba bakoitzaren autonomiaren errespetua
- Federazioarekiko atxikimendua edo atxikimendu eza norberaren baitan dago
- Elkartutakoen interesen zerbitzuan eta defentsaren helburuarekin
- Barneko gestio demokratikoa

Reyes de Navarra, 51
Tel.: 945 25 70 88
Faxa: 945 25 39 59
01013 GASTEIZ
posta-e: koop@euskoop.org
www.euskoop.org

Azoka

Durango: 35. Euskal Liburu eta Disko Azoka abenduaren 6tik 10era


Bailarako uzta Durangoko Azokan salgai

MARIJO DEOGRACIAS

Bailarako autoreei dagokienez, hiru liburu eta bost disko aurkeztuko dira Euskal Liburu eta Disko Azokan. Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak "Hamaika ipuin" lana prest dauka; Aitor Arana idazle araoztarrak "Atharratzeko erregina" idatzi du eta Pello Zabala Arantzazuko fraideak "Naturaren mintzoa" lana aurkeztuko du Alberdania argitaletxearekin. Klimatologiak naturan duen eraginaz idatzi du Pellok. Kapituluka banatu beharrean, hilabeteka eta egunka banatu du liburua, eta 300 bat egun jaso ditu. Zeltiarren egutegia ere azaltzen du: zeltiarrek hil bakoitza zuhaitz batekin identifikatzen zuten. Adibide bat jartzearren, ekaina eurentzat haritza zen, eta zuhaitzik handiena izateagatik hilabeterik argitsuenarekin lotzen zuten. Jakina, tenporen gaineko kontuak ere jaso ditu.

Musikaren sailean, *Sen* talde oñatiarrak bere lehenengo lana eramango du Oihukaren saltokira: "Negarraren amorrua"; *Numen* talde mondragoetarrak izen bereko lana izango du DDTren salmahaian, eta Juan Carlos Irizar musikari oñatiarrak "Ametsen artean" jarriko du Autoprodukzioa etxearen salmahaian. Horrez gain, *Txapelpunk* taldeak Arrasateko kiroldegian aurkezpen kontzertua eskainiko du zapatuan eta Durangon euren lehen lana jarriko dute salgai: Txapelpunk. Gor diskoetxearekin grabatu dute eta garai bateko punk doinuak berreskuratu dituzte. Taldeko kideetako bi *Etsaiak* taldeko Iñigo gitarrista eta *RIP* talde mitikoan aritu zen Julen gitarrista dira. Beste bi kideak Eneko (bateria) eta Magu (baxua) dira.





***Txapelpunk* eta *Sen* taldeek euren lehenengo diskoa jarriko dute salgai Durangon, eta Juan Martin Elexpuruk bere azken idazlana.**



M.D.


Jendea ez du txepel uzten *Putz* aldizkariak eta hori lorpen handia da. Txarrena kirofanoko proiektu bat ateratzea litzateke. Badauka bere saltsa, gatz eta piperra, eta polemikoa da zentzu askotan; erotismoa lantzen dugu eta hemengo idazle asko sartzen ditugu, bestela, ez lukete inon argitaratuko". Horrela definitzen du Diego Martiartuk *Putz* aldizkaria. Orain dela urtebete aurkeztu zuten Durangon lehenengo aldiz eta aurtengo azokarako seigarren zenbakia prest dute. Horrekin batera, Alberto Eguskiza "Egus"en CDa banatuko dute. "Puntu eta Koma etilikoak" liburua ere kaleratu dute.

Aldizkariarekin batera, CDa eta egutegi porno-folklorikoa argitaratu ditu *Putz*-ek Durangoko Azokarako.

Paddy Rekalderen asmoari jarraituz, hainbat idazlek alkoholdun edari bat aitzakia hartu eta ipuinak idatzi dituzte argitalpen horretarako. Idazle ia guztiak *Putz*-eko kolaboratzaileak izan dira, bi izan ezik: Manex Agirre eta Josu Lartategi, alegia. Azalean Jon Ozaetaren argazkia ageri da eta "Puntu eta koma etilikoak" liburuan agertzen dena Asier Aritzabaleta mondragoetarra da.

Eta hori guztia gutxi balitz, Pernan Goñi "Pelman"ek egutegi porno-folklorikoa egin du "Zatoz eta konta ezazu" izenarekin. 300 pezetan jarriko dute salgai.





***Putz* bihilabetekarikoek "Puntu eta koma etilikoak" idazlana ere aurkeztuko dute.**

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA / *Biografia*



GABRIEL ARESTI
ANGEL ZELAIETA
Susa liburuak
252 orrialde

Lehen poema hura, "Dance Dans la prière" izenekoa, idatzi zuenetik, laudatua, saritua, zentsuratua, iraindua, miretsia, zokoratua, kantatua... Gure kultura-memorian leku oso berezi eta garrantzitsua hartzen du Gabriel Arestik. Bere hainbat poema ikur bihurtu dira denontzat; haren hizkuntza ereduak hurrengo belaunaldiak eta euskara bera markatu zituen. Angel Zelaietak gida argigarri eta zehatza eskaintzen digu idazle Arestiren lana eta bizitza ezagutzeko, bere heriotzaren 25. urteurrenean.

DISKOA / *Kantautorea*



MIKEL URDANGARIN
Gaztelupeko hotsak
14 kantu
55 minutu

Mikel Urdangarinen azkenengo lana "Espilue" deitzen da. Ahots sakon eta biribildua duen kantautore zornotzarrak espektatiba guztiak bete ditu disko honekin eta Euskal Herriko kantautore garrantzitsuenen artean kokatu da. Ukitu estilistiko kontenporaneoak, folk anglozeltiarrak, *country* amerikarraren usaina, harizko instrumentuek ematen dioten klasikotasuna, akordeoiaren oihartzuna edo rock inguruko baladek egiten dute lan biribil "Espilue", barren-barrenetik kantatua eta arrazionaltasunez grabatua dagoen lana.

KOMIKIA / *Denporapasa*



ETORKINAK
30. zenbakia
Napartheid
52 orrialde

*Napartheid*ek, Durangoko azoka dela eta, 30. alea atera du. Hainbat arrazoi ei daude ale hau ateratzeko: XXI. mendeari begira herrialde aberatsak beren mugak ixten ari dira. Etorkin guztiak ez ditugu begi berberekin ikusten. Hego Amerika, Asia eta Afrikakoak baino errazago onartzen ditugu Europa eta Ipar Amerikakoak. Besteekin lanpostuak lapurtzen dizkiguten sentsazioa dugu. Europarrekin, berriz, ez dugu horrelako sentsaziorik. Mila arrazoi daude "Etorkinak" ale hau ateratzeko. Gainera, Euskal Herria ez da izan emigrante asko izan dituen herria?

GOIENKARIA
Ostirala / 2000ko abenduaren 1a

Abendua: 1-7

Antzerkia

BERGARA> Pasaiako **Interruptus** taldearen **"Komunikazioa, inkomunikazioa"** antzezlana bihar, larunbata, hilak 2, 22:30ean, Gaztetxean.

ESKORIATZA> Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berria bihar, larunbata, 17:00etan, Eskoriatzako Kiroldegian.

ELGOIBAR> "No es tan facil"antzezlana gaur, hilak 1, 22:30ean, Herriko antzokian, Tentazioak taldearen eskutik.

ELORRIO> Txotxongilo taldearen **"Itsasminez"** igandean, hilak 3, 17:00etan, Elorrioko Arriola aretoan.

Musika

ANTZUOLA> Antzuolako txistulariak eta abesbatza, Bergarako metal boskotearekin igandean, abenduak 3, 12:30ean, zinema aretoan.

ARETXABALETA> Sergei Voitenko errusiarraren akordeoi emanaldia asteazkenean, hilak 6, 20:00etan, Aretxabaletako parrokian.

ARRASATE> Txuma Murugarren kantautorea gaur, abenduak 1, 22:30ean, Ferreriasko Basati tabernan, Kultur Errota egitasmoaren barruan.

RIP, Heriotza, Txapelpunk eta Kañeria 13 taldeen kontzertua bihar, larunbata, 22:00etan, Musakolako Kiroldegian. Senideak eta Gestora taldeek Pedro Guridi "Pedrotxo"ren omenez antolatuta. Sarrerak 1.500 pezeta txarteldegian eta 1.200 aurrez erosiz gero (ohiko tokietan salgai daude).

Fuerza Latina taldea bihar, hilak 2, gauerdian, Otalora kaleko Aterpe kafetegian.

Sergei Voitenko Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi txapeldunaren emanaldia ostegunean, hilak 7, 20:00etan, Arrasateko parrokian.

BERGARA> Kaos Etiliko asteartean, hilak 5, 22:30ean, Gaztetxean.

Abenduaren 7an, ordu eta toki berean, **Nuevo Catecismo Catolico**, **Vincent Von Reverb** eta **Brigada Kriminal**.

Duo Ab Libitumen kontzertua larunbatean, hilak 2, 19:30ean, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Bibolina: Catalin Bucataru. Pianoa: Patxi Azpiri.

Igandean, hilak 3, ordu eta toki berean, **Pedro Jose Rodriguez**en piano kontzertua.

Elektro dance jaialdia bihar, larunbata, gauerdian, Jam aretoan.

The Hellacopters eta **The Hives** taldeak Jam aretoan abenduaren 8an, 22:30ean. Sarrerak: 2.500 pezeta.

ESKORIATZA> Flitter, MPB eta Klineks taldeen kontzertua abenduaren 16ra atzeratu da. Aipatutako kontzertua Eskoriatzako pilotalekuan izango da, 22:30ean.

EIBAR> Jean Bordaxar igandean, hilak 3, 18:00etan.

Erakusketak

ARAMAIO> Gatz Museoaren neguko ordutegia: astebukaeretan eta jaiegunetan egunero lau bisita egingo dira: goizez 11:30ean eta 12:30ean eta arratsaldez 16:00etan eta 17:00etan. Astebarruan taldeei zuzendutako bisitak izango dira. Informazioa eskatu eta erreserbak egiteko telefonoak hauek dira: 943 71 67 46 eta 943 71 47 92.

BERGARA> Mikel Gotzon Garcia "Izurun"en margoak Nahikari tabernan.

OÑATI> Iñaki Jauregialtzo "Jaltzo"ren zeramika lanak Urrintxo tabernan.

Manos Unidas erakundearen erakusketa Mikel Goiangeruaren parrokian igandera arte, hilak 3.

Lehiaketak

ANTZUOLA> Antzuolako Udaletxean fresko-mural bat pintatzeko lehiaketa. Epaimahaiak 500.000 pezetako sari bakarra emango du. Lanak entregatzeko epea abenduaren 11n bukatuko da. Argibideak Antzuolako Udaletxean edo 943 76 62 46 telefono zenbakian.

ARRASATE> XIV. Arrasate Lehiaketak: ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Mugaeguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.

Komiki Ez Sexisten IV. Lehiaketa deitu du Arrasateko Udaleko Emakume sailak, Gazteria eta Euskara sailen laguntzarekin. Gaia librea izango da eta nahi duen orok parte hartu ahal izango du. Lanak aurkezteko epea 2001eko uztailaren 20an bukatuko da. Emaitzak irailaren 28a baino lehen iragarriko dira. Lehen saria 100.000 pezetakoa izango da. Beste hainbat sari ere banatuko dira. Argibide gehiago Arrasateko Udalean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

BERGARA> Amodiozko Gutunen IX. Lehiaketa, Jardun elkarteak deituta. 1986an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak parte har dezake. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.

ZARAUTZ> XIX. Xabier Lizardi umeendako ipuin lehiaketa deitu du Zarauzko Udalak. Gutxienez 12 orrialde idatzi beharko dira. Sari bakarra izango da, 400.000 pezetakoa. Lanak ondoko helbidera bidali behar dira: Zarauzko Udala, Euskara zerbitzua, 20800 Zarautz. Xabier Lizardi lehiaketarako dela adierazi. Argibideak 943 13 09 60 telefono zenbakian.

Ikastaroak

ARRASATE> Goi mailako taila ikastaroa eskaintzen du Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Abenduaren 11n hasiko da. Izena emateko deitu ondoko telefono zenbakietara: 943 79 40 79 (Felix) eta 943 79 77 57 (Jose Mari).

BERGARA> Sevillana ikastaroa Jam aretoan abendutik aurrera, ostegunero, 18:30etik 20:00etara. Argibideak 943 76 35 81 telefono zenbakian.

Euskara suspertzaile ikastaroa, Jardunek eta Bergarako Udalak antolatuta, aisialdi taldeko partaideei, euskara elkarteko kideei eta euskara eta aisialdiaren inguruan interesa dutenei zuzenduta. Eskolak abenduaren 2an, urtarrilaren 13an, 20an, 27an eta otsailaren 3an izango dira Bergarako Udal Euskaltegian. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.


Deiak

ARETXABALETA> Pirinioetara irteera. Murrukixo mendizale elkarteak Benasquera mendi irteera antolatu du datorren asteko zubirako. Bost egunetan zehar Aneto, Pico Alba eta Maladeta mendiak igo nahi dira. Tartean La Renclusako aterpean lo egingo da. Oraindik ere joan nahi duenak izena emateko aukera du. Argibideak eta izenematea 943 79 93 74 telefono zenbakian.

Mendiola Burun kanpamendua, Zaraia mendi taldeak antola-



SEN TALDEA OÑATIN. Oñatiko *Sen* taldearen jendaurreko aurkezpena izango da bihar, larunbata, 22:30ean, Oñatiko Gaztelekuan. Aitor Uriarte (ahotsa), Haritz Harreguy (gitarra) eta Aiheko Zubimendi (bateria) hirukoteak osatzen dute *Sen* taldea. Taldeak bere lehenbiziko diskoa kaleratu berri du. Taldekideek badute esperientzia musika munduan eta pop-rock estiloko abestiak landu dituzte. Haritz Harreguy usurbildarra *Larrua Truk* taldean aritu izan da, Aiheko Zubimendi hernaniarra *Mixil* taldeko kidea dugu eta Aitor Uriarte Oñatiko *Latzen* taldeko abeslaria izan genuen hainbat urtez. Talde berria zuzenean ezagutzeko aukera paregabea. Sarrerak 500 pezetan salgai jarriko dira.



Piano kontzertua

Pedro Jose Rodriguez

Bergara
Igandean, hilak 3, 19:30ean
Udaletxeko osoko bilkuren aretoan

uta. Zubia inguruko lekuak eza-utzeko aprobetxatuko dute. Argi-ide gehiago 943 79 10 52 zen-akian (Martin).

ARRASATE> Desobedientzia ibilari buruzko jardunaldiak aste-ehenean, hilak 4, 18:45ean, Esko-a Politeknikoan.

Palestinaren inguruko mintegi-antegia Jaizale elkartean abenduaren 16an, 10:00etatik 14:00etara, Komite Internazionalistak taldeak antolatuta. Izen-ematea Jaizale elkartean edo 943 34 04 04 telefono zenbakian.

Atapuercako aztarnategira bisitaldi gidatua abenduaren 15ean, Helduen Eskolak antolatuta. Goizez, gizon emakumeon ondare izendatutako aztarnategi garrantzitsura bisita eta arratsaldez, Burgosen, Espainiako monumentu gotiko ederrenetariko bat ikusiko dute. Autobus txartela eta sarrerak 1.000 pezetan salgai. Argibideak eta izenematea 943 77 11 72 telefono zenbakian.

AEK-k deitutako kontzentrazioak abenduaren 1ean, 4an eta 15ean Arrasateko Plazan, 19:30ean.

BERGARA> AEK-k deitutako kontzentrazioak San Martin plazan gaur, abenduak 1, abenduaren 4ean eta 15ean, "AEK aurrera, euskara aurrera, erasorik ez" lelopean, 19:30ean.

ELGETA> Hiesaren sentsibilizazio kanpainaren barruan larunbatean, hilak 2, "Philadelphia" filma eskainiko da 19:00etan Gaztetxean. Ondoren, Hies Berri taldekoen hitzaldia izango da.

ESKORIATZA> "Very bad things" filmaren emanaldia bihar, larunbata, 18:00etan, Eskoriatzako Gazte Asanbladaren lokalean.

OÑATI> Xake txapelketa larunbatean, hilak 2, Gaztelekuan, 09:00etan hasita.

Jaiak

OÑATI> Uribarri auzoko San Andres jaiak abenduaren 1etik 3ra. Gaur, hilak 1, 22:00etan etxaflero jaurtiketa eta mus txapelketa Urtiagain jatetxean. Bihar, larunbata, 16:00etan, haur jolasak eta txokolate-jana eta 21:00etan auzo afaria Txopekua jatetxean. Ondoren, musika. Igandean, 12:30ean, Meza Nagusia San Andres ermitan eta ondoren hamaiketakoa trikitilariekin eta bertsolariekin.

Zinema

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Woman on top
Eguakitza: 19:00, 22:00.

El exorcista
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:00.
Igandea: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Asteartea (ikuslearen eguna): 19:00, 22:00.

Jóvenes prodigiosos
Asteazkena: 17:00, 19:30, 22:00.
Osteguna: 19:00, 21:30.

BERGARA / NOVEDADES ARETOA

El bar Coyote
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.
Igandea: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena (ikuslearen eguna): 19:30.

Snatch, cerdos y diamantes
Asteazkena: 17:00, 19:30, 22:15.

Plenilunio
Osteguna, zine-kluba: 20:00.

OÑATI / SANTANA

El bar Coyote
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 19:30, 22:30.
Igandea: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Mi perro Skip
Igandea: 17:00.

Morir (o no)
Osteguna, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

UNZAGA

Los ángeles de Charlie
Ostirala: 22:15.
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:15.
Igandea: 17:00, 19:45, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Asteartea, ik. eguna: 19:30, 22:15.
Asteazkena, ik. eguna: 17:00, 19:30, 22:15.

RIALTO

Lo que la verdad esconde
Ostirala: 19:30, 22:15.
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:15.
Igandea: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.
Asteazkena: 17:00, 19:30, 22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

Bajo sospecha
Larunbata: 19:30, 22:15.
Igandea: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

Space cowboys
Asteazkena: 16:30, 19:30, 22:15.

ELORRIO / ARRIOLA

X-men
Larunbata: 20:30.
Igandea: 20:00.
Astelehena: 20:00.

El bola
Asteazkena, zine-kluba: 20:15.
Osteguna, zine-kluba: 20:15.

DURANGO / ZUGAZA

El exorcista
Larunbata: 19:00, 22:00.
Igandea: 19:00, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Asteartea (ikuslearen eguna):: 19:00, 22:00.

GASTEIZ

GURIDI

Dinosaurios
Ostirala: 18:00, 20:00, 22:30, 01:00.
Larunbata: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.
Igandea: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 18:00, 20:00, 22:30.

Lo que la verdad esconde
Ostirala: 17:00. 19:45, 22:30, 01:00.
Larunbata:17:00. 19:45, 22:30, 01:00.
Igandea: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00, 19:45, 22:30.

Manuelita
Ostirala: 18:00, 20:00, 22:30, 01:00.
Larunbata: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.
Igandea: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 18:00, 20:00, 22:30.

Persiguiendo a Betty
Ostirala: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Larunbata: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Igandea: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Otoño en Nueva York
Ostirala: 17:30. 20:00. 22:30, 01:00.
Larunbata:17:30. 20:00. 22:30, 01.00.
Igandea: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

El grich
Ostirala:17:30. 20:30. 22:30, 01:00.
Larunbata:17:30. 20:30. 22:30, 01:00.
Igandea: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Los ángeles de Charlie
Ostirala:18:00. 20:00. 22:30, 01:00.
Larunbata: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.
Igandea: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 18:00, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

Besos para todos
Ostirala: 17:30. 20:00. 22:30, 01.15.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:30, 22:45, 01.15.
Igandea: 16:00, 18:00, 20:30, 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Lo que la verdad esconde
Ostirala: 17:30. 20:00. 22:30, 01.15
Larunbata: 17:15, 20:00, 22:45, 01.15.
Igandea: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

El grinch
Ostirala: 17:30. 20:00. 22:30, 01.15.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:30, 22:45, 01.15.
Igandea: 16:00, 18:00, 20:30, 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Dinosaurio
Ostirala: 17:30. 20:00. 22:30, 01.15.
Larunbata: 16:30. 18:30, 20:30. 22:45, 01.15.
Igandea:16:30. 18:30, 20:30. 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Otoño en Nueva York
Ostirala: 17:15. 20:00. 22:30, 01.15.
Larunbata: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01.15.
Igandea: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehena: 17:15, 20:00, 22:30.

Banpiro txikia
Ostirala: 17:15, 20:00.
Larunbata eta igandea: 16:15. 18:30.
Astelehena: 17:15:20:00.

Poseidos
Ostirala: 22:30, 01.15.
Larunbata: 20:30, 22:45, 01.15.
Igandea: 20:30, 22:45.
Astelehena: 22:30.

Harry, un amigo que os quiere
Ostirala: 17:15, 20:00, 22:30, 01.15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01.15.
Igandea: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena: 17:15, 20:00, 22:30.

Ed Gein
Ostirala: 17:15, 20:00, 22:30, 01.15.
Larunbata: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01.15.
Igandea: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehena: 17:15, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMA

El pequeño vampiro
Ostirala: 17:30. 20:00.
Larunbata eta igandea: 16:30, 18:30.
Astelehena: 17:30, 20:00.

El convento del diablo
Ostirala: 22:30.
Larunbata eta igandea: 20:30, 22:30.
Astelehena: 22:30.

SAMANIEGO

Marco Antonio
Marrazki bizidunak. Euskaraz
Ostiraletik astelehenera: 17:00.

Animal factory
Ostiraletik astelehenera: 19:45, 22:30.

Scary movie
Ostiraletik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

La isla del cangrejo
Marrazki bizidunak.
Ostiraletik astelehenera: 17:00.

You´re the one
Ostiraletik astelehenera: 19:45, 22:30.

Los ángeles de Charlie
Ostiraletik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

AZUL

La perdición de los hombres
Ostirala: 17:30, 20:00, 22:30.
Larunbata: 17:30, 20:00, 22:30.
Igandea: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 18:30, 21:00.

Luna papa
Ostirala: 17:30, 20:00, 22:30.
Larunbata: 17:30, 20:00, 22:30.
Igandea: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 18:30, 21:00.



EL EXORCISTA

Zuzendaria: William Friedkin. Aktoreak: Linda Blair, Jason Miller, Ellen Burstyn. > 18 urte

1973. urtean filmatutako *El exorcista* film arrakastatsuaren bertsio berriak harrera beroa jaso du oraingoan ere ikusleengan. Kritikaren arabera, inoiz egin den filmerik beldurgarriena da. Neska gazte bat (Linda Blair) ondoezik dago eta bere amak apaiz bati deituko dio, gaixotasunak alde izpiritualari kalte egingo dion beldurrez...Exortzismoa egiteko ordua izango da.

LO QUE LA VERDAD ESCONDE

Zuzendaria:
Robert Zemeckis.
Aktoreak: Harrison Ford, Michelle Pfeiffer. = 13 urte

Spencer doktorea (Harrison Ford) itxuraz pozik bizi da *Claire* bere emaztearekin (Michelle Pfeiffer). Hala ere, urte batzuk aurretik modu misteriotsuan hil zen emakume batekin abentura bat izan zuen, eta Claireri hildakoaren mamua ikusten duela iruditzen zaio. Etxe inguruan gauza arraroak gertatzen hasiko dira eta bikotearen arteko harremana kolokan izango da...

OTOÑO EN NUEVA YORK


Zuzendaria: Joan Chen.
Aktoreak: Richard Gere, Winona Ryder. > 13 urte

Willek (Richard Gere) emakumeekin dituen harremanetan ez du inolako konplikaziorik nahi izaten. Charlottek (Winona Ryder), berriz, gauzek betiko irauten ez dutela sinisteko pisuzko arrazoia du; izan ere, gaixotasun sendaezina dauka. Biak elkartzean maitemindu egingo dira, adin aldea handia izan arren. Garai bateko istorio erromantikoen arrakasta errepikatzeko asmoz egindako filma.

PLENILUNIO

Zuzendaria: Imanol Uribe.
Aktoreak: Miguel Angel Sola, Adriana Ozores, Juan Diego Botto. > 13 urte

Imanol Uribe zuzendariaren azken filma Donostiako azken Zinemaldian aurkeztu zen, eta era guztietako kritikak izan zituen. Antonio Muñoz Molina idazlearen nobelan oinarrituta dago. Herri txiki batean neskatxa bat hilik azalduko da eta bertako poilizia inspektoreak hiltzailea bilatzeari ekingo dio eta, bide batez, iraganeko gertakizunak eta izandako maitasun harremanak gogoratuko ditu.



EL BAR COYOTE

Zuzendaria: David McNally.
Aktoreak: Piper Perabo, Adam Garcia, Maria Bello, Melanie Linskey . > 13 urte

Emakume batek musikari izateko asmoa dauka eta hori lortu nahirik New Yorkera joango da, ilusioz beterik. Baina, bere bizitzak erabateko aldaketa izango du Coyote Ugly izeneko ostatuan lanean hasten denean. Tabernari bezala sekulako arrakasta izango du eta era guztietako jendea ezagutuko du.

DINOSAURIOS

Zuzendaria: Ralph Zondag eta Eric Leighton. Marrazki bizidunak. Adin guztiak.

Dinosaurioen gaineko marrazki bizidunetako filma datorkigu oraingoan. Duela 65 urte narrasti handiak ziren lurreko nagusiak. Aladar iguanodontea lemuren artean heziko da, eta meterorito batek bere bizilekua hondatzen duenean, leku aproposago baten bila hasiko da, dinosaurio multzo batekin elkartuz...

POSEIDOS

Zuzendaria: Janusz Kaminski.
Aktoreak: Winona Ryder, Ben Chaplin. > 13 urte

Maya Larkini exortzismoa egin zioten eta orain deabruaren menpekoak berreskuratzen saiatzen da. Antikristoa Kelson idazlearen gorputzean mamituko dela sinistuta dago Maya.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxebizitza salgai, kalean bertan: 70 m². Salneurri interesgarria. Tel.: 655 74 59 26. Iban.

Aretxabaleta. Etxebizitza alokagai Loramendi aldean. 943 79 56 19.

Aretxabaleta. Etxea salgai. 649 93 07 32.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai. 649 93 07 32.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andresen. 943 79 99 26. Eguerdian edo gauean deitu.

Arrasate. Etxebizitza salgai Sailuente plazan. 943 77 19 47.

Arrasate. Erdialdean etxe bat erosiko nuke. 943 79 85 08.

Bergara. Pisua salgai Zubiaurren. 80 m². Sukaldea, 2 bainu, 3 logela, egongela, harrera-gela, berogailua, gas naturala. Prezioa negozia daiteke. 630 50 56 16.

Bergara. Apartamentua salgai Barrenkalea 34an. Txukuna eta jantzia. 943 14 72 56 edo 943 14 81 36.

Baños de Ebro. (Arabako Errioxa) Etxea salgai. 8 urte ditu. Sukaldea, txokoa, 2 logela, horma-armairuak, bainugela handia, terraza eta garajea (garajea plazara begira). Altzariduna. Tel.: 943 79 52 75. Felix.

102. EROSI

Atiko bat erosiko nuke hemen inguruan. 670 05 32 73.

Arrasate. Etxebizitza zahar bat erosiko nuke. 649 86 73 05.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Ikasle batendako logela alokagai. Sukaldea erabiltzeko aukera. 627 642 713.

Arrasate. Etxebizitza alokagai. 943 79 28 21.

Arrasate. 4 logelako etxebizitza ikasleentzat alokagai. 943 76 25 28 eta 943 79 98 86.

Arrasate. Erdiko Kalen ikasleentzako pisua alokagai. Tel.: 943 79 12 20 (Dora).

Bergara. Pisua alokairuan Matxiategin. 943 76 21 06. Dei egin 21:00etatik aurrera.

Bergara. Etxeko logelak alokatzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. 943 76 15 40.

104. ERRENTAN HARTU

Apartamentua. Pertsona bakarrarentzat apartamentu edo estudio bat alokatu nahi da Debagoienean. Interesatuak deitu 943 71 53 14 telefono zenbakira (utzi mezua).

Arrasate. Etxebizitza bila nabil, konpartitzeko. Presakoa. 945 27 80 59.

Arrasate. Etxebizitza edo gela bila gabiltzan 2 ikasle gara. 943 74 13 93 eta 943 67 26 45.

Arrasate. Bi neska arrasatearrek (ez ikasleak) pisua alokatuko lukete. 630 45 12 79.

Arrasate. Pertsona heldu batek pisua behar du errentan hartzeko. 943 79 61 72.

Debagoienean alokairuzko etxebizitza behar dut. 943 71 61 89. Juan.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. 943 80 64 05.

Arrasate. Etxebizitza bila nabil, konpartitzeko. 943 65 04 95. Gauez deitu.

Bergara. Etxea konpartituko nuke. 943 76 02 46. Arrate.

Jaca. Eski denboraldirako, beste bi pertsonarekin edo, etxebizitza osatuko genuke Jacan. 43 79 68 04.

106. BESTELAKOAK

Bergara. Fraskozuri kalean logelak alokagai. 943 76 43 95.

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Asteazken eguerdira arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko dira.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

2/ GARAJEAK

201. SALGAI

Arrasate. Garajea salgai Arimazubin. 943 79 99 26. Deitu eguerdian edo gauean.

Arrasate. Garajea salgai Kontzeziñon, 18 (9 m²). 943 79 96 17. 13:00 - 15:00 eta 21:00 - 22:00.

Arrasate. Garaje itxia salgai Musakolan, 2 sarreraduna. Prezio negoziagarria. 696 40 50 42 eta 943 79 09 31.

Bergara. Garajea salgai Bolun. 943 76 04 39.

Bergara. Garajea salgai San Lorentzon. Prezio egokia. 943 76 35 74.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia alokagai Larrea auzoan. Interesatuek deitu: 943 79 69 41.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian (60m²). Eta 22m²ko patioa. 606 76 50 22.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Fraskozuri kalean lokalak alokagai. 943 76 43 95.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Lasai ikasteko lokal baten bila gabiltza. Tel.: 943 79 63 60. Denis.

Arrasate. Gazte talde batek lokal bat behar du alokatzeko. Ahal bada, merkea izan dadila. Tel.: 943 79 26 19. Mikel.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Geriatria eta klinika laguntzailea gaixoak zaintzeko gertu. Etxean, ospitalean edo gauetan. 609 77 01 33.

Astelehenetik ostiralera arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 01 80.

Neska gaztea gertu astelehenetik ostiralera (arratsaldez) lan egiteko. 943 76 01 80.

Neska eta mutila lan mota desberdinak egiteko gertu daude. 600 60 05 31.

Atzerritar mutil bat lan bila dabil 686 66 22 71.

Arrasate. Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. 600 600 531.

Arrasate. Neska prest umeak zaindu edo etxeko garbiketak egiteko. 943 79 94 20. Camila.

Arrasate. Taberna batean zerbitzari lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. 653 71 87 72.

Arrasate. Errotulazio lanetan esperientziaduna prest alor horretan lan egiteko. 653 71 87 72.

Arrasate. Mutil arduratsu bat hainbat lan egiteko prest dago: zerbitzari, pintore, nagusiak edo umeak zaindu, eta bestelakoak. 653 71 87 72 (Juan).

Arrasate. Ingeles filologia ikasten ari den mutil batek, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke. 943 71 47 85. Jon.

Arrasate. Neska prest arratsaldez umeak zaintzeko edo orduka lan egiteko. 943 71 53 74.

